



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

KALITATE POLITIKA

Bidasoa bizirik-en misioa da kalitatezko zerbitzuak eta produktuak ematea bere erabiltzaileei, beren beharren eta espero dutenaren bilakaerara etengabe egokituz, termino hauetan: edukia, maiztasuna eta zerbitzuaren gainerako atributuak. Horrela lortzen dira kalitate maila handia eta langileen integrazioa eta asebetetzea, betiere garapen jasangarriaren, aukera-berdintasunaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik eta Enpresaren Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren barruan.

Garapen Jasangarriko 2024-2030 Plan Estrategikoarekin bat etorritik, eta gure erabiltzaileen beharrak asebetetzeko ditugun efikazia eta eraginkortasuna direla eta, Bidasoa biziriken kalitate politika bat ezarri zuen Administrazio Kontseiluak, erakundearen kide guztiek onartua, hurrengo helburuak bete daitezzen:

1. Legezko eta arauzko erabiltzaileen betekizunak zehaztu eta betetzea; horrela, etengabe bilatzeko horien asebetetzea, eta lan egin ezadostasunei aurre egiteko, horiek gertatu baino lehenago aurreikusteko; eta, gertatuz gero, erantzun azkarra, konstruktiboa, positiboa eta aldekoa ematea edozein egoeraren aurrean, tratua eta aukera-berdintasuna bermatuz eta beharren eta errealitateen aniztasuna kontuan hartuz.
2. Zerbitzua emateko filosofiarekin eta kulturarekin lan egitea erakunde osoan, eta zerbitzuak ematerakoan iraunkortasun ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren irizpideak txertatuz.
3. Kalitatea sustatzeko lan-giro egokia sortzea, pertsonak prestatuz eta motibatuz eta talde-lana garatuz, etengabeko hobekuntzara bideratuta, errespetutik, aukera-berdintasunetik eta barne-kudeaketan genero-ikuspegia txertatuz abiatuta.
4. Kalitate Kudeaketa Sistemaren etengabeko berrikuspina, ikuspegi kritikoaz egindako barruko auditoriak eginez sistema hobetzeko, eta emaitzak erakundearen helburu estrategikoekin lerrotatuz.
5. Transmisio kanal aktibo gisa erabiltzea Bidasoa biziriken barruko komunikazioa sistema, Erakundearen maila guztien artean, parte-hartzea, gardentasuna eta koordinazioa bultzatuz.

Prozesuetan inplikaturako pertsona guztien parte hartzearekin, Kalitatearen Kudeaketa Sistemaren jarraipenarekin eta etengabeko hobekuntzarekin lortuko da helburu horiek guztiak betetzea, kalitatearen kudeaketatik 2030 Agendaren printzipioak eta Garapen Jasangarriko Helburuak betetzea lagunduz.

Kalitate Politika hau betetzeko konpromisoa hartu du Bidasoa bizirikek, eta horretarako behar diren baliabide materialak eta pertsonalak jarriko ditu Kalitate Sistema ezartzeko, jarraipena egiteko eta hobetzeko, baita bertan agertzen diren helburuen, programen eta ekimenen aldizkako berrikuspina ere, eta Plan Estrategikoarekiko eta berdintasunaren eta garapen jasangarriaren arloko konpromisoekiko koherentzia bermatuko ditu.

Irunen, 2026ko martxoaren 30ean



Eva Fernández Polosa
Bidasoa Bizirikeko Zuzendaria / Gerentea